

## **Eskola Txikien III Topaketak**

**Durango 2008-6-25**

### **Gurasoen tailerra**

Parte hartzaileak: Angiozar (2), Bidegoian, Zizurkil, Lizartza, Igeldo, Ereñozu (2), Alkiza, Arrankudiaga (3), Artzentaletas, Gatika (2), Lemoiz, Roser Boix

Eskola bakoitzekoek euren eskolako ezaugarri nagusienak aurkeztu zituzten.

Aipatutako ideia nagusiak:

- Irakasle eta gurasoen arteko harreman onak garrantzi handia du. Batzutan irakasleek ez dute nahi izaten guraso partehartzailerik.
- Irakasleen egonkortasun falta arazo larria da. Arrazoiak asko dira, baina batzutan irakasleek ez dira eroso sentitzen formazio espezifikorik ez dutelako eta ondorioz ez dute eskola txikian jarraitu nahi.
- Euskal Herrian ez dago Eskola Txikien kulturarik, ez guraso, ez irakasle, ez udal ezta Hezkuntza Administrazioan. Eskola Txikien mundua arlo desberdinetan zabaldu beharra dago: Unibertsitatean, herrietan,.....